



## GERNU-INFEKZIOA SENDA-AGIRIA HARTU ONDORENERAKO ZAINTZAK ETA GOMENDIOAK

---

- Bizi-ohitura normalak bere adinerako.
- Senda-agiria ematerakoan ez da ohikoa haurrak sukarra izatea; izango balu eta 38° baino altuagoa balitz, joan pediatrarengana senda-agiriarekin.

### Medikazioa:

Medikuak senda-agirian agindutako dosian, maiztasunarekin eta egunetan eman behar da medikazioa.

### DMSA Kontrolak:

Santiago Ospitaletik, Medikuntza Nuklearreko Zerbitzutik deituko dizute, hitzordua emateko. Ez da beharrezkoa baraurik egotea proba egiteko.

### Zistografia:

Erradiologia Zerbitzura joan beharko duzu senda-agirian zehaztutako egunean. Proba hori egiteko ez da beharrezkoa baraurik egotea.

### Gernu-analisia:

Senda-agirian zehaztutako egunean **Pediatriako 1. Zenbakiko Kanpo Kontsultara** joan beharko duzu gernu-analisia egiteko. **EZ DA BEHARREZKOA BARAURIK EGOTEA.**

### Odol-analisia:

Senda-agirian zehaztutako egunean **Pediatriako 1. Zenbakiko Kanpo Kontsultara** joan beharko duzu gernu-analisia egiteko. **BEHARREZKOA DA BARAURIK EGOTEA.**

